

XXXIII. IGANDEA ASTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko gure Jauna, emaguzu Zuri beti pozik zerbitzu egitea;
on guztien egile Horren zerbitzuan bizitzea baita guretzat
egiazko zorion betea.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ml 4, 1-2a

Zuzentasunaren eguzkiak argituko ditu.

Malakias Profetaren liburutik

Hona non datorren Jaunaren eguna, labea sutan bezala; harroak eta gaizkileak lastoa bezala
izango dira; zeharo kiskaliko ditu datorren egunak –dio diren guztien Jaunak–; ez du utziko, ez
adarrik, ez sustrairik. Nire izenari beldur diotenak, ordea, hegaletan osasuna daraman zuzentasun
eguzkiak argituko ditu.

ERANTZUN SALMOA: Sal 97, 5-6. 7-8. 9

**R/. Badator Jauna,
herriak zuzentasunez epaitzera.**

Eresi Jaunari kitararekin,
kitara eta salteri ozenarekin:
turuta eta adar-hotsean,
egin txalo errege den Jaunaren aurrean. R/.

Orro egin beza itsasoak bertako guztiekin,
lehorrak ere bertan bizi direnekin.
Txalo jo bezate ibaiek,
pozez oihu egin mendiek. R/.

Jaunaren aurrean badatorrelako,
lurbira epaitzera datorrelako.
Zuzenbidez epaituko du lurbira,
eta zuzentasunez herriak. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Ts 3, 7-12

*Lanik egin nahi ez duenak,
ez dezala jan.*

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei

Senideok: Ondo dakizue zer egin behar duzuen gure antzeko izateko: ez baikara alferkerian bizi
izan zuen artean; ez dugu ogirik inoren lepotik jan, gau eta egun lan egir

bizkar ez bizitzeko. Ez eskubiderik ez genuelako, jarraibide eman nahi genizuelako baizik, zuek gure antzeko izan zaitezten.

Zuen artean ginenean, hau esaten genizuen: lanik egin nahi ez duenak, ez dezala jan. Entzun baitugu, zuen artean batzuk alferkerian bizi direla, ezer egin gabe, non zer jakingo, berriketan. Horrelakoei agintzen diegu Jesu Kristo Jaunaren izenean, bakean lan egin dezatela, beren ogia irabazteko.

EBANJELIOA: Lk 21, 5-19

Aleluia: Lk 21, 28

R/. Aleluia.

V/. Zuti zaitezte eta jaso zeuen buruak:
hurbiltzen ari da zeuen askatasuna. R/.

Zuen iraupenez, onik aterako duzue zeuen bizia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, norbaitzuek jauretxearen ederra goraiatzuten zuten, harri ederrez eta eskaingaz apaindua ikusten zutelako. Orduan Jesusek esan zien: «Etorriko dira egunak, eta ikusten dituzuen guzti hauek, ez da haririk harri gainean geldituko; dena apurtu egingo dute».

Haiek galdera hau egin zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? eta zer izango da seinale, hori gertatzera doala?»

Jesusek erantzun zien: «Begira, ez zaitzatela inork lilura. Asko etorriko baitira nire izenean, "ni naiz" esaten, eta "laster da garaia". Ez jarraitu horrelakoei. Borroka eta nahaspil hotsak entzutzen dituzuenen, ez ikara. Hauek gertatu behar dute lehendabizi; baina azkena ez da berehala izango».

Esan zien gainera: «Herriak herrien aurka jaikiko dira, eta erreinuak erreinuen aurka; lurrikara izugarriak izango dira, baita izurriteak eta goseteak ere han ete hemen. Gauza beldurgarriak gertatuko dira eta ezaugarri handiak ikusiko zeruan.

Baina horien aurretik eskuak erantsiko dizkizute, erasoko dizute, sinagogetara eta gartzeletara eramango zaituzte, baita errege eta agintarien aurrera ere, nire izenagatik. Horiek guztiek nire testigu izateko bide emango dizute. Sartu ondo bihotzean, ez daukazuela nola erantzungo buruhausten ibili beharrik. Nik emango baitizuet hizkuntza eta jakinduria; eta hizkuntza eta jakinduria horri ezingo diote, ez erantzun, ez aurka egin, zuen etsai guztiek.

Gurasoek, senideek, ahaide eta adiskideek ere salatuko zaituzte; eta zuetako zenbait hil egingo zaituzte; guztiek gorroto izango zaituzte nire izenagatik; baina zuen buruko ile bat ere ez da galduko; zuen iraupenez, onik aterako duzue zuen bizia».

Oparigaien gainekoa

Atzegin bekizu, Jauna, gure eskaintza:
bete gaitzala Zuganako maitasunez
eta ekar diezagula betiko biziaren zoriona.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zure dohain santuak harturik,
apalik eskatzen dizugu, Jauna:

zure Semeak bere oroigarri egiteko agindu digun Eukaristia honek
ugal dezala gudan maitasuna.
Jesu Kristo.